

ONTZIOLA VENEZIARRAK, LEHOI GREKOAK ETA ERRUNA NORDIKOAK

Josu NARBARTE

Sorreratik, Veneziako Errepublikak itsasora begira bizi izan zen. Bere interes komertzialak eta geopolitikoak ekialdeko Mediterraneoan egon ziren batik bat; Konstantinopolisko hiriburu inperialean, lehenik, eta Egiptoko nahiz Lurralde Santuko portuetan, gero. Bide horretan, veneziarrek hainbat lurralde menperatu zituzten Istrian, Dalmazian eta Egeo itsasoan, eta, horiek mantentzeko, ezinbestekoa izan zuen ontziteria handi bat sortzea eta mantentzea. Helburu horrekin sortu zuen, XII. mendeaz geroztik, hiriko lantegi publikorik handiena: Arsenal ontziola erraldoia, hain zuzen ere.

Gaur egun, Arsenalako konplexuak 48 hektarea hartzen ditu, Veneziaren hedadura osoaren %15 inguru, hainbat mendetan egindako etengabeko zabaltzeen ondorio. Kanalez eta harresiz inguratuta dago, eta bi ate nagusi ditu: bata hegoaldean, Porta da Tera, eremua San Marco kanalarekin eta hiriaren erdigunearekin lotzen duena; eta bestea ekialdean, Porta Nova, zuzenean Lidoko portura eta itsaso zabalera daramana.

LAU LEHOI

Turkiarrek Konstantinopolis —egungo Istanbul— konkistatu zutenean (1453), Veneziaren lehiakide zuzen bilakatu ziren ekialdeko Mediterraneoako merkataritzaren kontrolari dagokionez. Ondorioz, Errepublikako agintariek Arsenalako konplexua berritzeko erabakia hartu zuten, izaera militarra emateko xedez. Garai horretan berreraiki zuten Porta da Tera, hirian Berpizkundeko arkitekturaren lehen adibide izango zena.

Atearen izaera monumentala azpimarratzeko, ondorengo mendeetan lau lehoiren eskulturak jarriko zituzten haren bi aldeetan, ontzioletako zaindariak bailiran. Eskultura horiek, neurri eta forma desberdinetakoak, hor daude oraindik ere, eta gorabeheraz jositako historia dute bizkar gainean.

Ateari begira jarrita, eskuinaldean hiru lehoi ikus daitezke. Horien artean, erdikoa da guztietan zaharrena. Egeo itsasoko Delos irlatik dator, eta K.a. VI. mendean egin zuten. Antzinaroan, Delosko agora edo plaza nagusira zihoan bide ertzean

Aukera zurea da. Eskultura bati begira gera zaitezke gizakiak moldaturiko harri puska soil bati bezala, eta aurrera segi; besterik gabe. Edo, zergatik ez. Beha dezakezu harria ondo, eta aztertu, bere historia amaigabea barneratzeraino, eta hala, mundu erdia zeharkatu, istorio ederrei tiraka, hasieran zentzugabea dirudien zerbaitekin liluratuta gelditu arte. Veneziako lehoi eskultura bati begira gelditu gara gu, eta bidaiatu, gerraz gerra, konkistaz konkista, Grezia eta Eskandinavia hari berarekin josi arte. Harrizko lehoiaren sorbaldan mundu bat kabitzen delako.




kokatuta zegoen, beste zortzi lehoiren eskulturekin batera; horietako bost bertan daude oraindik, aztarnategi arkeologikoan ikusgai. Veneziakoa, aldiz, Andrea Pisani almiranteak gidatutako konpainia batek ebatsi zuen XVIII. mende hasmentan. Handik urte gutxira jarri zuten Arsenalako sarreran, 1716an veneziarrek turkiarren aurka Korfu uhartean izandako garaipena ospatzeko. Eskulturak ez zuen bururik, eta veneziarrek berri bat jarri zioten; behar baino handiagoa, nabarmen.

Deloskoaren ezkerrean dagoen eskulturak lehoi-burua du, baina hori bakarrik. Jatorrian zakur handi bat irudikatzen zuen, moloso bat. Hau ere Greziatik lapurtu zuten veneziarrek; K.a. IV. mendekoa da, eta Atenasko Akropolian zeuden hilobiak zaintzen zituen, ziur aski. Hirira XVIII. mendean ekarri zuten eta, aurrekoari bezala, lehoi-buru berri bat fabrikatu zioten.

Eskuineko lehoia da guztietan txikiena. Hau ere K.a. IV. mendekoa da, eta Atenasen du jatorria. Hefestoren tenplu ondoan zegoen, agoraren ipar-mendebaldean, eta bertatik abiatzen zen Pireoko portura zihoan bidea. Oinarrian daukan inskripzioaren arabera, 1687an iritsi zen Veneziara. Garai hartan, Errepublika gerra betean zegoen turkiarrekin, Grezia kontinentala nork kontrolatuko; eta, Francesco Morosini kapitainak gidatuta, garaipen handia lortu zuten Akropoliko Setioan. Argi dago, beraz, Atenas arpilatu ondoren lortutako botinaren parte izan zela lehoia, eta garaipenaren ikur gisa jarri zutela Arsenalako atearen.

Antzeko historia du atearen ezkerrean dagoen lehoiak. Ia hiru metroko garaiera du, eta jatorrizko burua mantentzen duen bakarra da. Jatorrian K.a. IV. mendean egin izan litekeen arren, Atenasko Pireoko portuko sarrera zaindu izan zuen, gutxienez, K.o. I-II. mendeaz geroztik. Kokapen horretatik, belaunaldiz belaunaldi Grezia gobernatu zuten potentzia guztiak ikusi zituen pasatzen: erromatarak, bizantziarrak, gurutzatu frantziarrak eta aragoiarrak, turkiarrak eta, 1687ko setioaren ondoren, baita veneziarrak ere. Hain zen deigarria eskultura hori, ezen venezia-



reek “Porto del Leòn” deitzen baitzio-
ten Pireori. Hortaz, Akropoliko Setioa-
ren ondoren, bere tokitik kendu eta Ve-
neziara eraman zuten, Morosiniren
loria handitzeko. Ez alferrik. Hurrengo
urtean, Errepublikako *doge* izendatu
zuten, arrakasta militar horren sari.

ERRUNA NORDIKOAK

Baina, ordurako, Pireoko Lehoiak ba-
zuen historia luze bat, bereziki interes-
garri egiten duena. Veneziarrek be-
rehala erreparatu zieten eskulturaren
sorbaldetan grabatuta zeuden zeinu
arraroei; baina inor ez zen gai haiek
irakurtzeko, ez baitziren karaktere lati-
noak, ezta grekoak edo arabiarrek ere.

XVIII. mende bukaeran argitu zen
misterioa. Johan David Åkerblad diplo-

mazialari eta filologo suediarrek hiria
bisitatu zuenean, ohartu zen Pireoko
Lehoiaren markak fupark alfabetoko
errunak zirela, hau da, antzinako Es-
kandinaviako gizarteek erabilitako
idazkera-sistema. Egun oso higituta
baldin badaude ere, oraindik bereiz
daitezke, hurbiletik begiratzuz gero. He-
rensuge kiribildu baten forma dute,
mitologia nordikoan *linnormr* deritzon
izaki fantastikoa eratuz.

Hala ere, oso zaila da errunek diote-
na zehaztea. Alde batetik, harria zinez
higituta dago, eta zeinu asko ezin dira
irakurri. Bestetik, hizkuntza aldetik ere
interpretazio arazoak daude.

Hala, Carl Christian Rafn eruditua da-
niarrak proposatu zuen testuaren
lehen itzulpena, 1854an:

Aurreko orrialdean, Pireoko Lehoia,
Veneziako Arsenalaren atarian.
Sorbaldan erruna nordikoen
aztarnak bereiz daitezke, oso
higituta. Irudia: Josu Narbarte.
Josu NARBARTE

Lerro hauen gainean, Delosko
lehoien indusketa, XIX. mende
bukaeran. Jean-Charles Moretti, “1873-
1913 Délos: Images d’une ville antique
révélée par la fouille” (2018).

**Porta da Tera izeneko atearen ezkerrean dagoen lehoiak ia
hiru metroko garaiera du, eta jatorrizko burua mantentzen
duen bakarra da. Atenasko Pireoko portuko sarrera zaindu
izan zuen, gutxienez, K.o. I-II. mendeez geroztik**

**Veneziarrek berehala erreparatu zieten eskulturaren
sorbaldetan grabatuta zeuden zeinu arraroei; baina inor ez
zen gai haiek irakurtzeko, ez baitziren karaktere latinoak,
ezta grekoak edo arabiarrek ere**

«[Eskuin aldean] Asmundek erruna
hauek ebaki zituen Asgeir, Thorleif,
Thord eta Ivar lagun zituela, Harold
handiak aginduta, grekoek hala jakin
eta debekatu egin zieten arren».

«[Ezkerraldean] Hakon, Ulf, Asmund
eta Örn izan ziren portu hau konkista-
tu zutenak. Gizon horiek eta Harold
Hafik isun handia ezarri zieten greziar
erreboltariei. Dalk gatibu dago urru-
neko lurraldeetan. Egil eta Ragnar es-
pedizioan joan dira Errumaniara eta
Armeniara».


Ondorengo hamarkadatan, hainbat
adituk ikerketa gehiago egin zituzten
Pireoko Lehoiaren inguruan. Horiei es-
ker, errunak XI. mende inguruan data-
tu ahal izan zituzten, eta Suediako Ros-
lagen eskualdeko beste inskripzio
batzuekin lotura dutela ondorioztatu.

1922an, Erik Brate filologo suediarrek
beste itzulpen bat proposatu zuen:
«Bere armadaren erdian akabatu zu-
ten. Baina, portuan, gizonak errunak
grabatu zituzten itsaso ondoan Horsi
gerlari onaren oroimenez. Suediarrek
hau izkiriatu dute lehoi honen gai-
nean. Bere bideari ekin zion, aholku
onei jarraiki. Urrea irabazi zuen bere
bidaietan. Gerlariak erruna hauek gra-
batu dituzte, espiral apaingarria eratu-
ta. Roslagen eskualdean bizi ziren Æs-
kell, Þorlæif eta beste batzuek grabatu
zituzten. Ulf eta [-]-k koloreztatu zi-
tuzten, Horsiren oroimenez. Urrea ira-
bazi zuen bere bidaietan».

IPAR URRUNEKO MERTZENARIOAK

Itzulpen bat edo bestea onetsi, argi da-
go inskripzioak Erdi Aroko Eskandina-
viarekin daukan lotura. Zenbaiten
aburuz, testua Haraldr harðráði (“gu-
pidagabea”) buruzagi bikingoarekin
lot liteke. Izan ere, 1030ean, hamabost
urte zituela, zauri larriak jaso zituen
Stiklestadeko guduan, errebel norve-
giarren aurka borrokan. Horren ondo-
ren, bidaia luze bati ekin zion Errusia-
ko lautadetan zehar, eta 1035ean
Konstantinopolisera iritsi zen.

Han, bere gizonak Zoe enperadore
bizantziarraren zerbitzura jarri zituen,
Baregoen Guardia delakoa osatuta.
Hainbat sagak jasotzen dituzte Haral-



den ibilerak ondorengo urteetan, mertzenario-lanetan: Anatolian arabiarren aurka, Trazian eta Sizilian, besteak beste. Baliteke ibilera horietan iritsi izana Atenasera, tokiko greziarren errebolta zapaltzeko; horixe litza-teke Veneziako lehoiaren sorbaldan irakur daitekeen pasadizoa.

1041. urtean, Migel V. enperadoreak preso hartu zuen Harald, berea ez zen botin bat gordetzea leporatuta. Baina buruzagi baregoak ziegatik ihes egin eta mendekua hartu zuen, enperadorea itsututa eta bere amaordea, Zoe, tronuan berrezarrita. Horren ondoren, 1043an sorterrira itzuli, eta 1047an Norvegiako errege bihurtu zen, 1066an heriotza iritsi zitzaion arte.

Bitxiak dira, batzuetan, historiaren jirabirak. Hala, antzinako Atenasen landutako eskultura batek bere azalean izkiriaturatuta daramatza XI. mendean Eskandinaviatik iritsitako mertzenarioek grabatu zitzioten errunak, Konstantinopolisko enperadoreen zerbitzura erreprimitutako errebolta baten lekuko. Lehoia eta errunak Veneziara eraman zituzten seiehun urte berandua-go, turkiarren aurka lortutako garaipen handi baten ondoren, Errepublikako kargu gorena begiz jota zeukan kapitain baten anbizioa asetzeko. Eta han daude ordutik, Mediterraneoko ontziola-komplexu handiengan, egunero aurretik pasatzen diren herritar gutxiren eta turista ugariren begien azpian ikusezin, higaduraren eraginpean pixkanaka desagertzen.

Veneziako Arsenalaren ikuspegia.
Irudia: Joan Blaeu, 1724.
WIKIMEDIA COMMONSIA

XVIII. mende bukaeran, Johan David Åkerblad diplomazialari eta filologo suediarra ohartu zen Pireoko Lehoiaren markek antzinako Eskandinaviako gizarteek erabilitako idazkera-sistemeekin lotura zutela

Hala, antzinako Atenasen landutako eskultura batek bere azalean izkiriaturatuta daramatza XI. mendean Eskandinaviatik iritsitako mertzenarioek grabatu zitzioten errunak, erreprimitutako errebolta baten lekuko

